## 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 63 INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Hona hemen 2016ko ekitaldian Ingurumen Iraunkortasunaren Programaren barruan egindako jardunen laburpena:

Garapen iraunkorreko plan eta estrategien abiaraztea bultzatu eta babesteko lerroan, beste ezeren aurretik nabarmentzekoa da Arabako Foru Aldundiak parte hartu izana Europako hiri eta herri jasangarrien 8. konferentzian, eta “Euskal adierazpena. Ibilbide orri berria Europako hiri eta herrientzat” delakoarekin bat egin eta izenpetu izana.

Era berean, 2016an, aldundia EAEn iraunkortasun konpromisoa berritzeko akordioari atxiki zitzaion. Akordio horrek iraunkortasun politikak sustatzearen eta erakundeen artean koordinatzearen alde egiten du UDALSAREA 21 sarearen esparruan, zeinetan parte hartzen baitute Eusko Jaurlaritzak, EUDELEK eta Euskal Autonomia Erkidegoko 200 udalerrik baino gehiagok.

Ekintza lerro horretan bertan, eta foru jardunaren esparruan, ekitaldi honetan “ALHko garapen iraunkorreko plan estrategikoa 2011-2015” eguneratzeko lanak ere egin dira, xedetzat hartuta oinarriak garatzea Europan eta EAEn hartutako iraunkortasun helburu eta konpromiso berriak planera egokitu eta txertatzeko, aplikazio horizonte berrian (2018-2030).

Ingurumenaren zuzentze eta leheneratze jardunak gauzatzeari dagokionez, jarraipena eman zaio antzinako meatzeguneak leheneratzeko programari, eta betelan eta lehengoratze sekuentzialeko esku hartzeak ezarri dira, funtsean Langraiz Okako Torco izeneko antzinako harrobia ardatz dutenak.

Esku hartze zehaztua egin da, orobat, hondakindegiek eta kontrolik gabeko zaborguneek eragindako guneetan; zehazki, ekologia eta paisaia birsortzeko ekintzak egin dira. Gure lurraldeko hamabost esparru

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2016

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 63 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Las actuaciones realizadas a lo largo del ejercicio 2016 dentro del Programa de Sostenibilidad Ambiental se resumen a continuación:

En la línea del impulso y apoyo a la puesta en marcha de planes y estrategias de Desarrollo Sostenible cabe destacar en primer lugar la participación de la Diputación Foral de Álava en la 8ª Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles y su alineación como signataria a la “Declaración Vasca. Nueva Hoja de Ruta para ciudades y pueblos Europeos”.

Asimismo la Diputación se adhiere en 2016 al Acuerdo de Renovación del Compromiso por la Sostenibilidad en la CAPV, que apuesta por el fomento de las políticas de Sostenibilidad y su coordinación interinstitucional en el marco de la Red UDALSAREA 21, en la que participan el Gobierno Vasco, EUDEL y más de 200 municipios del País Vasco.

En esta misma línea de acción, y en el ámbito de actuación foral, se han abordado también en este ejercicio los trabajos de actualización del “Plan Estratégico de Desarrollo Sostenible del THA 2011-2015” con la finalidad de desarrollar las bases para la adaptación e incorporación al Plan, en su nuevo horizonte de aplicación (2018-2030), de los nuevos objetivos y compromisos adoptados a nivel Europeo y de la CAPV en materia de Sostenibilidad.

En lo que se refiere al desarrollo de actuaciones de Corrección y Restauración Ambiental se ha dado continuidad al programa de recuperación de antiguas áreas mineras, contemplando intervenciones de relleno y restauración secuencial focalizados fundamentalmente en la antigua cantera de El Torco en Nanclares de la Oca.

Han sido también objeto de intervención particularizada, con acciones de regeneración ecológica y paisajística, los entornos afectados por escombreras y puntos de vertido incontrolado que han

andeaturi ere ingurumen tratamendua ezarri zaie.

Zadorrako urtegien urertzetako ekologia egokitu da, urbazterreko habitatak babestu, leheneratu eta hobetzeko lanei esker, eta horiek dira gauzatutako ingurumena leheneratzeko programaren barruan egin diren beste ekintza aipagarri batzuk. Izan ere, programa horren xede nagusia Uribarri Ganboako urtegiaren muturretako Ramsar hezegunean esku hartzea izan da.

Espazio publikoak jolaserako erabiltzeko egokitzeak ingurumen baliabideez gozatzea indartzen du, Arabako natura eta paisaia ondarearen gaineko ezagutza sustatzen du eta naturan izanik ekojolaserako jarduerak garatzen laguntzen du. Arabako Lurralde Historikoko parkeak eta ibilbide berdeen sarea gero eta gehiago erabiltzeak erakusten du programak zer-nolako arreta jartzen dien.

Lan lerro horren barruan, nabarmentzekoak dira Arabako ibilbide berdeen sarean lehendik dauden ibilbideetan egindako hobekuntzak eta tarte berrietan gauzatutako egokitze lanak, bereziki: antzinako Vasco-Navarro trenbidearen ibilbide berdean, Inaziotar bidean eta Uribarri Ganboako urtegiko ibilbide berdean.

Nerbioiko parke linealeko ibilbide berdean ere zenbait lan egin dira: dagoeneko abian den ibilbideari jarraipena emango dion tarte berriaren, Zamora zelaitik Amurrioko herrigunearekin bat egiten duen tokira artekoaren, proiektua; eta aurreikusitako ibilbideak hartuko dituzten lursailak erosteko hornidura ekonomikoa egin da.

Garaio eta Landako parkeetan hainbat jardun egin dira bertako ekipamendua eta azpiegiturak nahiz natura ingurunea hobetzeko. Hain zuzen ere, parke horietako hondartzek bandera urdina eskuratu zuten 2016an. Nabarmentzekoak dira pasabidea eraiki dela mugikortasun urriko pertsonak Landako hondartzara iritsi ahal izateko, eta paisaia egokitzeko lanak egin direla Garaioko antzinako elizaren inguruan.

Zerbitzuaren jarduera esparruak beste arlo bat ere hartzen du barnean: plan, programa eta proiektuen ingurumenaren gaineko eragina ebaluatu eta

incluido el tratamiento ambiental de quince ámbitos degradados de nuestro territorio.

La adecuación ecológica de las márgenes de los Embalses del Zadorra, con la ejecución de trabajos para la protección, restauración y mejora de los hábitats ribereños, son acciones también destacadas en el programa de Restauración Ambiental llevado a cabo y que ha tenido como objeto de intervención principal el Humedal Ramsar de las Colas del embalse de Ullibarri-Gamboa.

El acondicionamiento de espacios públicos para el uso recreativo potencia el disfrute de los recursos ambientales, promueve el conocimiento del Patrimonio Natural y Paisajístico de Álava y favorece el desarrollo de actividades ecorrecreativas en contacto con la Naturaleza. La utilización creciente de los Parques del Territorio Histórico de Álava y de la Red de Itinerarios Verdes es reflejo de la atención que a los mismos se presta en el programa.

Dentro de esta línea de trabajo cabe resaltar las intervenciones de mejora en rutas ya existentes y acondicionamiento de nuevos tramos llevados a cabo en la Red de Itinerarios Verdes de Álava, en particular en la Vía Verde del antiguo Ferrocarril Vasco-Navarro, Camino Ignaciano y Ruta Verde del Embalse de Ullibarri-Gamboa.

La Vía Verde del Parque Lineal del Nervión ha sido también objeto de atención con los trabajos de proyección del nuevo tramo que dará continuidad a la ruta ya en servicio desde el Campo de Zamora hasta su enlace con el núcleo de Amurrio, y la dotación económica realizada para la adquisición de los terrenos del futuro trazado previsto.

Los Parques de Garaio y Landa, cuyas playas obtuvieron en 2016 el distintivo de Bandera Azul, han sido objeto de varias actuaciones dirigidas a mejorar sus equipamientos e infraestructuras y su entorno natural. Destacar la construcción de una pasarela para posibilitar el acceso de personas con movilidad reducida a la playa de Landa y los trabajos de acondicionamiento paisajístico del entorno de la antigua iglesia de Garaio.

La Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, otra de las disciplinas que abarca el ámbito de actuación del Servicio y que

zuzentzea. Baieztatu da hori garrantzi handiko bitartekoa dela gure lurraldeko ingurumen balio eta baliabideak antolatu eta babesteko. Bada, Ingurumen Ebaluazioaren Atalak horri buruzko txostenak igorri eta kasuan kasuko espedienteak bideratu ditu.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Hondakindegi kontrolgabeak leheneratu dira, eta zabortegi kontrolgabeak garbitu eta ezabatu dira probintzian. Horri esker, 32.700 m2 lursail leheneratu dira, eta 3.150 zuhaitz eta zuhaixka landatu.

Aurrera jarraitu dute 2016. urtean zehar Langraiz Okako “El Torco” harrobi zaharreko ingurumena eta paisaia leheneratzeko betetze sekuentzialaren lanek.

Batez ere Uribarri Ganboako urtegiko Ramsar sektoreko urertzetan ere ekologia eta paisaia leheneratzeko eta habitat naturalak hobetzeko jardunak egin dira, eta 4.700 landare autoktono landatu dira.

Ibilbide Berdeen Sarean 2016an gauzatutako tarte berriak egokitu dira, eta horri esker sarearen barruko loturak eta funtzionaltasuna hobetu dira, eta konponbidea aurkitu zaie eragindako eremuan errepidera irtetera behartzen zuten puntu beltzei. Nabarmentzekoa da lotura tartea prestatu dela Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdearen interpretazio zentroaren inguruan, Antoñanan, eta egokitu egin dela GR-120 Inaziotar bidearen adarra, Bilarren.

2016an zerbitzu egiteko prest jarri diren tarte berrien luzera, guztira, 10,3 km da.

Ingurumen zabalkunde eta hezkuntzako jarduerek arreta ugari eskatu dituzte, eta nabarmentzekoak dira urtegiaren muturretako Ramsar hezeguneetan, Garaioko parkean eta Mendixurko parke ornitologikoan gauzatutakoak. Hain zuzen, 2.100 eskola ume baino gehiago hartu dituzte urtean zehar.

Planen, programen eta proiektuen ingurumen inpaktua ebaluatzeari eta zuzentzeari dagokionez, 85 txosten

se confirma como una herramienta de gran importancia en la ordenación y protección de los valores y recursos ambientales de nuestro territorio, ha sido objeto de atención por la Sección de Evaluación Ambiental a través de la emisión de informes y la instrucción de los correspondientes expedientes.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Se ha procedido a la restauración de escombreras incontroladas de residuos, así como la limpieza y eliminación de puntos de vertido incontrolado en la provincia que ha supuesto la regeneración ambiental de 32.700 m2. de terreno y la plantación de 3.150 árboles y arbustos.

Los trabajos de relleno secuencial para restauración ambiental y paisajística de la antigua cantera de “El Torco” en Nanclares de la Oca han continuado a lo largo de este 2016.

Otras actuaciones de restauración ecológico-paisajística y mejora de los hábitats naturales han tenido como escenario preferente las riberas del Embalse de Ullibarri-Gamboa en su Sector Ramsar, que han sido objeto de revegetación con 4.700 plantas autóctonas.

El acondicionamiento de nuevos tramos de rutas en la Red de Itinerarios Verdes, llevados a cabo en 2016, ha previsto mejorar la interconectividad y funcionalidad de la Red y dar solución a puntos negros que obligaban al tránsito por carretera en el ámbito afectado. Destacar aquí la habilitación del tramo de conexión en el entorno del Centro de Interpretación de la Vía Verde del Vaco-Navarro en Antoñana y la adecuación del ramal del GR-120 “Camino Ignaciano” por Elvillar.

La longitud de los nuevos tramos puestos en servicio en 2016 ha sido de 10,3 km.

Las actividades de divulgación y educación medioambiental han implicado múltiples atenciones, destacando las desarrolladas en el Humedal Ramsar de las Colas del Embalse, Parque de Garaio y Parque Ornitológico de Mendixur que han recibido más de 2.100 escolares a lo largo del año.

En materia de Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, se han

egin dira 2016. urtean.

emitido 85 informes a lo largo del año 2016.